

# Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, S. V. O.?

VÍCTOR HIDALGO EIZAGIRRE\*

R. P. G. De Rijk irakasleak 1969an argitaratu zuen *FLV* aldizkarian «Is Basque an S. O. V. language?» artikulua gerora ospetsu bihurtua. Bertan, nagusiki eztabaidatzen da euskal hizkuntzaren adskripzio posiblea, edo zuzena, J. H. Greenberg irakasle estatu-batuarrak, 1961/63an<sup>1</sup>, munduko hizkuntzen sailkapen tipologikorako proposatzen dituen sei multzoen artean, kontutan harturik, batez ere, esaldi barreneko Sujeto (S), Objeto (O) eta Aditz (A; ingelesez, V) elementuek beren artean erakusten duten oinarrizko orden erlatiboa.

Geroztik, beste eztabaidarik gabe, euskara zierto adskribatutzat eman da oinarrizko SOV (SOA) ordena erakusten zuten hizkuntzen sailean. Asignazio ez harrigarriena, kontutan izaki Greenberg berak hasieratik erabiltzen duela euskara, eta honen egiazko, edo ustezko, ezaugarriak, beste 10 hizkuntzarekin batera<sup>2</sup>, aurredefinitzeko, hain zuzen, SOV talde horretako hizkuntzen karakteristika tipologikoak.

Euskararen SOV aldarrikapen honen arrakasta erabatekoan, izango zuen ere zerikusirik euskalarien artean, garaian Mitxelenak De Rijken artikuluari emandako babes zalantza gabeak. Besteak beste, De Rijk, berrikuntza bezala, estatis-

\* Doktore Euskal Filologian.

1. *Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements* hitzaldi/artikuluaren.

2. Oro har bere korpusean erabiltzen dituen munduko 30 hizkuntzaren artean.

tikoki hurbiltzen zitzaion euskararen hitz ordenari, aztertuz mende honetako zenbait testu, eta Mitxelenak lanaren alderdi hau azpimarratzen du agerian<sup>3</sup>.

Nire doktoretza tesian, *Hitzen ordena euskaraz*<sup>4</sup>, atal bereziki garrantzitsu bat eskaini nion estatistikoki aztertzeari euskal prosaren hitz ordena: aho, nola idatzizkoa; gaur egungoa, nola aurreko mendeetako. Nire emaitzak, ordea, ez zetozen batera bat De Rijkenekin.

Eta hauek izaki nireen aurretik ezagun ziren estatistika bakarrak euskarazko hitz ordenaren inguruan, nik bereziki hartu behar izan nuen gogoan hauek berraztertu beharra, bateko edo besteko oker-korapiloak desegin ahal izateko. Hurrengo orrietan doaz eztabaida honen emaitza nagusienak, nahitaez ulertu beharrekoak tesiaren atal bezala, inoiz ere ezohizko hurbiltzeak egiten bazaizkio euskal hitz ordenaren arazoari.

## AZKUE-ALTUBEREN EUSKARA EREDUAZ

Oso oker ez bagaude, Greenbergekin bere lana burutzen duen garaian, oinarrrian ezin konta dezake euskarazko hitz ordenamendua ezagutzeko, lehenago Azkuek edo Altubek eskainitako lan edo "datu"-ekin baino<sup>5</sup>. Kakotx artean, kasuan *datu* hitza ez delako eufemismo bat baino. Autoreon postulatuetan ez dira hizkuntzaren obserbazioak, baizik preskripzioak, jakinaren gainean irauli nahi dutenak, aurrera, hizkuntz errealitatea. Arrazoiz edo gabe egiten duten gero, beste kontu bat da.

### Azkue

Adibiderako, Azkue da lehenengo euskal gramatikagilea, bere gaztetako *Euskal-Izkindea*-tik (1891), eta aurreko euskal tradizio nagusi guztien kontrara, oso prezeski praktikatu, predikatu eta preskribatzen duena euskal esaldia-erentzako, antonomasiar, SOV ordena; edota honen pare edo orde, OVSa ere, beti bitxia munduko hizkuntzetan<sup>6</sup>. Azkue izango da ere lehenengoa pres-

3. 1978ko «Relato y orden palabras» artikuluan dioen bezala («Miscelánea filológica vasca, I», *FLV*, 1978, X, 205-228; *Palabras y textos*, EHU, 1987, 378, nondik): «*Aunque la prioridad en el mismo campo vasco pertenezca a otros, Rudolf P.G. de Rijk es, por cuanto sé, el autor del primer estudio bien fundado que se ha dedicado a nuestra lengua: ... De sus conclusiones se sigue, si yo no las he interpretado mal, que S.O.V. es el orden superficial estadísticamente dominante, además de ser el que todos, propios y extraños iniciados, hemos venido asignando intuitivamente a la lengua. De Rijk apoya esta presunción de preponderancia en textos (baja, como Greenberg en su día, del plano paradigmático al sintagmático, el único que está plenamente abierto a la cuantificación), tomados de materiales que en buena parte proceden precisamente de narraciones, populares o literarias*».

4. 1995ean irakurria EHUaren Gasteizko Filologia Fakultatean.

5. Bai ere, probablea den bezala, Greenbergekin Lafitteren 1944ko gramatika ere erabiltzen badu bere euskal ezagutzetarako. Gramatika hau ere urrutit haundirik gabe jarraitzen baitzaio atal honetan Azkueren edo Altuberen lehenagoko postulatuei.

6. Hala dio (1891, 344-5): «778. BOSKARREN ARAUA. Gaiak [elementuak] ia garransi bardina daukenean' *adizkia* [objektua] lenengo esaten dai, urrengo *aditza* (edo izakizuna [atributua]) ta laguntzailea' bear badau; *izatea* [el sér, sujetoa] adizkian aurretik ederto

kribatzen 1891tik aurrera, euskal tradizio nagusiaz bestela, aditzaren derrigorrezko posposizioa menpeko esaldian<sup>7</sup>. Eta Azkuek postulatu du, jada 1894rako, inork baino lehenago, galdegai legearen oinarriko printzipioa ere<sup>8</sup>.

### Cardaveraz, Azkueren aitzindari

Azkuek XX mendean setati bultzatuko duen estilistika eskola berri honek, ordea, badu nolabaiteko aurrerik euskal letretan. Lehenago, *Cardaverazen* jarraitzaileek ere oso prosa molde berezi bat praktikatu baitute euskaraz, ezaugarri ia bakar izan duena aditza ahalik eta gehien atzeratzea beti eta zeinnahi moztatuko esaldian<sup>9</sup>. Ez bakarrik menpekoetan, edo baiezkoko esaldi deklaratiβοetan; baizik, baita ere, galdera, ezezko edo aginterazkoetan, eraginez makina bat egitura bitxi eta gordin euskaraz beste inoiz erabili gabeak.

Ez alferrik da, Cardaverazek 1761erako ere euskalzaleen arterako haizatzaren duen konsigna, euskara idaztea *gaztelaniaren kontrara*<sup>10</sup>. Ez zertan euskara berari begira, edo aurreko autore euskaldunei.

Eta ezin esan da, 1761ean piztutako eskola honek ez duenik bere arrakastarik zabalena bereganatu gure XX mende hondarrerako.

### Cardaverazen eskola

Aditza guztien gaineratik atzeratzeko arauaren jarraitzaile sutsu izan dira Cardaveraz beraren 1760-66 bitarteko idatzi ugariak<sup>11</sup>, gerora hainbeste za-

esan leike, edo aditz ta laguntzailean atzetik. / *Etxe+bat egin dau Andresek = Andresek etxe bat egin dau - Narrastia dai sugea = sugea narrastia dai - Bost+orri daukaz larrosatxoak = Larrosatxoak bost+orri daukaz*. Areago jabetzeko Azkuek XX mendean hegoaldeko euskal joskerara erakarritako iraultzaz, ikus liteke zabalago nire lana *Resurreccion Maria Azkue (1864-1951): XX mendeko hitz ordenamenduaren iraulketa bortitz guztiaren, Aita eta eragile*, doktoretza tesirako prestatutako *Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta praktika idatziak* lanaren barne.

7. 1891, 334 eta hurr.

8. Jada «*regla suprema de construcción*» deitzen duena, eta lakonikoki formulatzen: «*como se pregunta se contesta*». (*Ensayo Práctico*, ≈ 1894, «Tema 15», 33; Bizkaiko Institutoko ikasleentzako ohar eta ariketak dira, multikopiatutako eskuizkribu bestela argitaragabe batean; ale bat gorde da Euskaltzaindiako Azkue bibliotekan).

9. Hala predikatzen du Cardaveraz berak agerian (J. I. TELLECHEA, «Larramendi y Cardaveraz. Censura y réplica inéditas sobre un libro de piedad», *ASJU*, 1968, 10-1; *Escritos breves. Obras del Padre Larramendi*, 302): «... *el bascuence no tiene de suyo preposición alguna y todas son postposiciones y la gala está en posponer aun los verbos, que por lo regular caen así con más elegancia. El no saber hablar bien ni leer y el seguir la construcción literal del castellano hace a malas mañas a los ignorantes*».

10. Aurreko oharrekoez gainera, halako aholku arrakastatsuak, euskararen berri ematen (*Eusqueraren berri onac*, 1761, 58; *Euskal lan guztiak*, I, 169): «*Beste izquerac bezala, gureac ere bere itzaldi egoqui, chit biciac, berezco, ta berariazco ederrac ditu. Baña Erdarac era batera, ta Eusquerac bestera. Onec era positivoan, ta arc prepositivoan. Esan naidu: Gaztelaniac beti aurretic dacarrena, Eusquerac azquenerontz beti botatcenduela: eta itzac beren lecuan, Gaztelaniaren contra ifintze orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago*».

11. Ez horregatik hala, urrutitik ere, bere 1744ko lehen liburua, *Christavaren Vicitza* (oraintsu ber-aurkitua, eta argitaratzaile zain dagoena), joskera tradiziozkoago batean ida-

baldu zirenak Euskal Herri osora Cardaverazen izen “santuaren” itzalean. Baita Lardizabalen lanak ere<sup>12</sup>. Eta oroz gain, Gregorio Arrue eskola maisuaren itzulpenak 1863/66az geroztik<sup>13</sup>.

Eta maila apalago batean: B. Olaechea bizkaitarraren *Dotrina Cristiane*a arrakastatsua, 1775eko bigarren argitalpen zuzendutik aurrera<sup>14</sup>; J. I. Guerreroen *Platicas*; edota ere, Aita Añibarroren *Esku-Liburua*-ren 2./3. argitalpenak 1821/27an<sup>15</sup>, eta *Gramatica Bascongada*-ren sarrerako ohar berantiar bat<sup>16</sup> (urrutitik ere ez, bere beste inoizko lanik). A. Campionek ere erakutsiko du eskola honen eraginik, besteak beste, eta bere euskarazko idatzietan ez ezik, 1884ko *Gramatica* erraldoiaren oharretan<sup>17</sup>. Agian aurki liteke beste aztarrenik ere barreatuta, garaiko eta inguruko autore txikiagoetan. Eta eragina, batik bat, autore giputzetan aurkitu arren, nabarmen da iparraldean ere estilo berriaren ukitua Duvoisinin 1856ko *Liburu Ederra*-n, hain zuzen, Cardaverazen (1761) *Aita San Ignacioren Egercicioen gañean afectoac* liburua-  
ren itzulpen librea. Nahiz, nolana, eragin posible hau erabat iraungiko den Duvoisinin ondorengo lanetan<sup>18</sup>.

tzia. Ezin argigarriagoa gertatzen da lehen argitalpen honen alderatzea, Cardaverazek berak egiten duenarekin gero berriro 1760an, goitik behera zuzenduz lehenengoaren hitz ordena.

12. Batik bat, bere *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira*. Baina baita ere *Gramatica*, nola bertako segidako oharra (1856, 81): «CAPITULO X / Colocacion de las partes de la oracion. / §. Unico. / En los precedentes capítulos se ha tratado del modo de colocar varias partes de la oracion y sus constitutivos, como el nombre y artículo, el nombre y pronombre, el sustantivo y adjetivo, el infinitivo y articulo de verbo, el determinante y determinado y otras; y resta ahora fijar la colocacion de todas las partes entre sí. / 1. En esta operacion han sido varios los Escritores vascongados, sin que se hayan sugetado á un método uniforme, como que la indole del idioma presta esta libertad: sin embargo, para que la oracion salga airosa y elegante, será muy conveniente, que el verbo se coloque al fin de la oracion, siempre que no viniere con relativo, pues en este caso, se ha de colocar segun este lo exija. Este método de fijar el verbo al fin de la oracion solos Ajular, llamado Ciceron vascongado, en su Guerocho guero, y el P. Cardaveraz en sus varias obras practicaron constantemente; así es que sus escritos, y cualquiera otro confectionado en esta forma, se hacen muy dociles á la memoria. El agente puede colocarse en primer lugar, el paciente en segundo, y el adverbio antes del verbo: v.g. *Jaungoicoac guizona munduaren asieran eguin zuen*, Dios crió al hombre al principio del mundo. Pero advierto, que cuanto digo en este capítulo relativo á la colocacion no es esencial é indispensable para una buena sintaxis».

13. Beraz denak, salbu 1858ko lehenengo *Cristauaren doctrinaren jaquinbide azaldua, edo Asteteren explicacioac Santiago Mazo jaunaren liburutic*, hau ere tradiziozko hitz ordenan jositia, ondorengoan guztiz desberdina.

14. Zeharo aldatzen dutenak 1763ko jatorrizkoaren ohizko hitz ordena.

15. Eginak hainbat aldatuaz 1802ko lehenengo argitalpenaren hitz ordena.

16. Ohar hau, ia seguru behar duena izan, Lardizabalen aipatu dugunaren jatorria, ez zen nolana argitaratuko, *Gramatica* bera bezala, 1969ra arte; eta dio (*ASJU*, 1969, 14): «... De paso advierto que assi Axular, como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien que se haga assi, pues sale mas natural. No tuve este methodo presente en dos libritos que dí a luz *Esculibrua*, y *Lorategui espirituala*. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel, ...».

17. Hala, honen sarrerako 44-5 orr., Cardaverazen 1761eko goragoko hitzak jasoaz; edota gero dioen bezala, Lardizabalen eta Añibarroren ildotik (782): «Los buenos escritores y hablistas rematan la frase, por lo común, con el verbo principal de ella».

18. Autore guzti hauen lanen eta eraginaren inguru, begira litezke zabalago, nire 1760-1766, *Aita Cardaverazen berrikuntza gordinak*, eta *Cardaverazen eskola bat, XIX mendean*

## Altube

Finean, ez da Cardaverazen joskera eskola hau baino izango, itxura-berri-tua, hegoaldeko euskal letretan zabaltzen hasiko dena Azkuerekin 1891z geroztik, eta gorputz sendoagoa bereganatuko duena Altuberen 1919ko *De syntaxis euskérica*, eta batez ere, 1929ko *Erderismos*-en ondoretik. Joera sintaktiko berritzaileak, hegoaldeko euskal letren berpizte mugimendu osoa kutsatuko du 1936-9ko gerraterako, eta erabat baldintzatuko du hau gerra ondorenean. Ezin ahaztu da, 1951n hiltzen den arte, Azkue bera dela, dudagabe, euskal letren patriarka. Azkenik, pixkanaka, joskera berritzailea hasiko da ere iparraldera zabaltzen; beharbada lehenik Hiriart-Urruty, Barbier, edo Aita Lhanderen eraginez<sup>19</sup>, eta ondoren Lafitterenaz, iritsi arte gaur egun gazte letratu gehiengoagana.

\* \* \* \* \*

Horraingo, eta horrela, Greenbergek XX mendean erabili ahal izandako testigantzen muina, sustrai handirik gabea hizkuntzan barrena. Geroztik, ordea, Greenbergen nazioarteko itzalak oraino areago sustatu ditu gure artean Azkue-Altuberen apriorismo logizista eta metafisikoak.

## TRADIZIOZKO BIDEAK: ADITZA AURREALDEAN

Aipatu autoreen salbuespenarekin, euskal tradizio guztia gertatzen da aho batetsukoa hitzen ordenaren eremuan, eta oro har, aditzak nahikoa aurrealde batean ematen esaldian<sup>20</sup>.

### Hitz ordenamendu librearen aldarrika

Euskal gramatikariaren artean bada tradizio sendo bat hitz ordenamendu librea erreibindikatzen euskararentzako. Hala egiten du jada 1741erako, Martin Harriet, Larresoro Lapurdiko *Notari Erreñala*-k, dioenean bere *Grammatican* (501): «*On place dans la langue basque indifferemment, le cas devant les verbes comme, salcen dut ene etchea, ou ene etchea salcen dut, je vends ma maison, &c.*».

Geroztik, gure iparraldean gramatikaz kezkatu diren ia guztiek gorai patu dute euskararen ordenamendu askatasun hori<sup>21</sup>.

*barrena* lanak, doktoretza tesirako prestaturiko *Euskal gramatikariaren testigantza: iritziak eta, praktika idatziak* atal zabalagoaren barne.

19. Ikusgarria da esateko honen 1921eko nobela *Yolanda*-ri egindako gipuzkerazko itzulpenaren hitz ordena, bere zuberera edo nafar-lapurterazko beste lan, tradiziozkoen, aldean.

20. Mende honetako puristek hain oinarririk gabe salatu klasikoek "sintaxi erdalduna".

21. Hala, esateko, Lécusek (*Grammaire basque*, 1826, 82), Darrigolek (*Dissertation*, 1827, 142 eta hurr.), Chahok (A. Th. D'ABBADIE; J. A. CHAHO, *Études grammaticales*, 1836, 170 eta 183); edo jada jantzixego, Inchauspek 1856an (*Notes grammaticales sur la*

Hegoaldean<sup>22</sup>, Campionek jasoko du ordenamendu askatasun honen oihartzuna 1884ko gramatikan, eta askoz geroago ere<sup>23</sup>. Baina aldarrikapenok ez dute oihartzun haundirik izan hegoaldean<sup>24</sup>.

Mitxelenak ere altxatu zuen bere ahotsa jada 1953rako ere, tradizio bide hau errekuiperatu beharra postulatzeko, eta salatzen eraberean, Azkue-Altuberen sistemaren oinarri gabezia<sup>25</sup>. Baita ere ondoren eginiko hainbat ohar eta iruzkinetan, zeinen guztien oihartzun kontsidera litezkeen Villasanteren 1956az geroztiko hainbat lan interesgarri. Eta aurki liteke Azkue-Altuberen postulatuen errebisio eskaera hau beste zenbait autoretan, nola: J. M. Moco-roa («Ibar»), J. Azurmendi, A. Irigoien, edo oraintsuago, J. R. Zubimendi eta P. Esnal.

## OHAR BAT GREENBERGEN SAILKAPEN OROKORREN BALIOEZ

Ez naiz orain hemen hasiko eztabaidatzen, Greenbergen sailkapen orokorren balioak giza hizkuntzen tipologian, nahiz hau ere lan ugaritan egin den postulatu haiek argitaratuz geroko urteetan<sup>26</sup>.

*langue basque*, VI), edo 1858an, dioenean bere gramatika lan nagusian (*Le Verbe basque*, 430): «REGLES À SUIVRE POUR LE PLACEMENT DU VERBE. / I. La langue basque admet les inversions: ainsi on dit indifféremment: *háurrac éman zian eskia amári*, l'enfant donna la main à sa mère, ou *amári eskia éman zian háurrac*, ou *éman zian háurrac amári eskia*, ou *eskia háurrac amári éman zian* on peut avec ces mots faire vingt-quatre combinaisons différentes et toutes sont régulières.» Ondoretik, konbinaketa joku beretsuak erakutsi dituzte, Darthayet-ek 1867an (*Le mécanisme*, 167), Gèzek 1873an (*Éléments*, 10), edota It-hurryk 1894ean argitaratzen hasitako *Grammaire Basque*-an, non agerian jasotzen diren jada lau elementuko esaldiaren 24 konbinaketa posible horiek. Halako eskola liberal sendo baten ondorean, ez da harrizkoa, oraindik XX mende amaieran ere, askoz askatasun handiagoz jokatzeko bada iparraldean hitz ordenaren eremuan.

22. Gorago jaso ditugun Lardizabalen gramatikako hitz xumeez gainera.

23. *Gramatica*, 1884 (51, 779, 782); *La lengua bascongada*, 1897, 363 eta hurr.; *La lengua baska*, 1918, 248.

24. Cardaverzen eskolatik kanpoko testigantza guzti hauez eta gehiagoz, ikus litezke, nire *Tradiziozko testigantzak gure XIX mendean, iparraldeari lotutako gramatikalarien artean*, eta *Tradiziozko testigantzak XIX mendean hegoaldeko gramatikalarien artean* atalak, dokto-retza tesirako prestatuturiko *Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak* lanaren barne. Campionen gainean berriz, ikus *Arturo Campion (1854-1937), gramatikalaria gazte (eta euskal idazle)-aren ekarri batzuk* lan beraren *Cardaverzen eskola bat, XIX mendean barrena* atalean.

25. «Arnaut Oihenart» artikuluari egin eraskin interesgarrian dioen bezala (*BAP*, 1953, 460): «Labur esateko, Altube jaunak finkatutako legeak, euskerak gorde bear lituzkeanak izango dira agian, baiña ez euskerak gorde edo gordetzen dituenak». (Orain in *MEIG*, V, 35-47).

26. Eztabaidak, besteak beste, azpimarratuz, esaldiko SVO elementuen ez-parekotasun kategoriala (bi elementu nominal, bat *verbal*-a). Greenbergen eta honen presupostuen ondorengo urteetako eztabaidaz jabetzeko, interesgarria dateke ezagutzea J. A. HAWKINS-en *Word Order Universals* lana (bertan jasotzen da bibliografia nahikoa exhaustiboa). Bestelakoan, eta hitz-ordenaren eztabaida unibertsalen eta hauen historiaren sarrera baterako, interesgarriak litezke, H. WEIL, 1844, *L'ordre des mots dans les langues anciennes comparées aux*

Bai ordea erlatibizatu nahi nuke bere neurri apaleraino, SVO elementuen orden erlatiboaren azterketaren balioa, hizkuntzaren ordenamendu lege orokorrangoak ezagutu edo postulatu ahal izateko. Areago, euskara bezalako *orden libreko* hizkuntza batean<sup>27</sup>. Ze hauetan, inon baino nabarmenago dirudi, nola sujetoa eta objetua bezalako elementuen arteko orden erlatiboa ia soilik erabakitzen den komunikazioaren faktore pragmatikoen arabera (latinez edo bezalatsu; eta ez, esateko, frantzesean edo ingelesean bezala, non oso behar morfologiko zehatzek ezinbesteko eragina duten ordenamenduan).

Eta izan ere, euskararen aberastasun morfologikoez, deklinabide biziak, eta batez ere, aditz laguntzailearen komunztadura morfologiko ugariak<sup>28</sup>, zeharo mugatzen dute kuantitatiboki SVO elementuen agertze bateratua esaldian. Eta desberdintasuna, kasuan, ezin nabarmenagoa da, aldameneko frantsesa edo ingelesa bezalako hizkuntzekin, horren aditz morfologia pobreakoak gurearen aldean.

SVO elementu soilen orden erlatiboaren azterketak, ez du besarkatzen euskaraz, baiezko esaldi nagusi deklaratioben oso kopuru murriz bat baino: %10a inguru<sup>29</sup>. Beraz, hauen ordena azterketa estatistikotik erakarritako datuek soilik balio lezakete esaldi multzo murriz horrendako, eta ezingo dira besterik gabe ondorioak translatu esaldi kopuru osora. Nahiz datu beroriek gero baliagarriak izan litezkeen agian, hainbat ondorio tipologikotarako Greenbergen ildoan.

## DE RIJKEK ERABILITAKO KORPUSEZ

### De Rijken emaitzak

De Rijke hiru sail desberdinetan (I, II, III) biltzen ditu bere azterketa estatistikokoan erabilitako testuak. Eta hiruetako emaitzetatik konkluitzen du

*langues modernes*, A. SCAGLIONE, 1972, *The Classical Theory of Composition. From its Origins to the Present. A Historical Survey*, J. C. CHEVALIER, 1968, *Histoire de la syntaxe. La naissance de la notion de complément dans la grammaire française (1530-1570)*; U. RICKEN, 1985, *Grammaire et philosophie au siècle des lumières. Controverses sur l'ordre naturel et la clarté du français*, eta «L'ordre naturel du français. Naissance d'une théorie» artikulua; baita, C. ADJÉMIAN, 1978, «Theme, Rheme and Word Order: From Weil to Present Day Theories» artikulua; edota, bere maila dibulгатiboan, C. HAGEGE, 1985, *L'homme de paroles* liburua (berreziki VII/IX kapituluak, *Ordre des mots et ordre du monde*, eta *Théorie des trois points de vue*), eta 1978ko artikulua.

27. Definizio honetarako ikus ere, Euskaltzaindiaren 1987ko *Hitz ordena* artikulua.

28. Berez aberaski adieraz ditzaketenak aditz flexioaren barne, sujetoa, objetua, datiboa eta interlokuzioaren pertsonak, denbora, aspektu eta modu fiabardura hainbatez gain.

29. Holamoduzko datuak ditugu, Axular, Cerquand eta Websterren lanak aztertuta. Axularren kasuan esateko, XXXI-XXXIV kapituluaren artean (1976, 385-409), baiezko esaldi nagusi deklaratiibo eta konplementudun guztien kopurua 179koa izanik, ez ditugu 26 esalditan baino aurkitu, SVO hiru elementuak agerian emanak dituztenak (guztien %14,5ean). Cerquand-en bildumako lehen 23 ipuinetan berriz, baiezko 386 esaldi nagusi deklaratiibo konplementudunen artean, soilik 32 kontatzen ahal ditugu (%8,3a). Eta Websterren lehen zortzi ipuinetan, baiezko 320 esaldi nagusi deklaratiibo konplementudunen artean, soilik 19k erakusten dituzte SVO hiru elementuak agerian emanak (%5,9a).

nola euskara, estatistikoki ere, SOV saileko hizkuntza litzatekeen. Segidako taulan ehunekoetan erakusten duenaren gisara<sup>30</sup>:

	I	II	III	Dener.
SOA (SOV)	66,0	44,0	61,0	57,0
SAO (SVO)	23,0	37,0	31,0	30,0
OAS (OVS)	5,0	9,0	5,0	6,0
OSA (OSV)	2,5	7,0	1,5	4,0
ASO (VSO)	3,0	2,0	1,5	2,5
AOS (VOS)	0,5	1,0	0,0	0,5

### Laginen eztabaidan

De Rijkek erabilitako laginak, ordea, ez dira baliagarriak ordena aztertze-ko. Ez dira fidagarriak joskera aldetik. Zergatik?

II eta III laginak Nemesio Etxaniz (1899-1982) apaiz azkoitiarraren idazlanak dira, *Euskal-Antzertiak* liburuan argitaratuak 1958an. II laginekoak, autoreak berak sortutako antzerki lanak. IIIkoak berriz, Etxanizek Mérimée-renetik eginiko kontakizun laburren itzulpenak. Eta Nemesio Etxanizen idazkera, oro har, gozo eta atsegina gertatzen bada ere, autoreak ez du bere burua inola ere baztertzen, garaiak inposatutako joskera molde Azkue-Altubetarretik, eta oso aurreiritzi zehatzez idazten du hitz ordenamenduari dagokionean. Beraz, ezin gerta dakiguke bere testigantza baliagarriegia, hain zuzen, euskarazko hitz ordena hori aztertze<sup>31</sup>. Are gutxiago oraindik, III lagineko testuak, gainera itzulpen direnak<sup>32</sup>.

### Aita Barandiaranen ipuinen hitz ordenaren fidagarritasunaz

I lagineko testuak Aita J. M. Barandiaranen 1920-1936 bitarteko ipuin bilduma folklorikoak dira (*Eusko Folklore, El Mundo en la mente Popular Vasca*, III, 1962), eta itxuraz bederen, baliagarriagoak behar lukete izan, herrikoikiak liratekeen neurrian. Badut ordea arrazoirik testu hauen fidagarritasun sintaktikoa ere zalantzan jartzeko, hitz ordenari dagokionean. Barandiaran ere bere garaiko semea izango da, eta euskara kontuetan, beste guztiak bezalatsu, Azkuerena, zein duen gainera aitzindari eta gidari ipuin bilketa folklorikoan. Barandiaranek, Manuel Lekuonaren urte beretsuetan jarduten du ikasten Gasteizko apaiztegian, eta honekin batera izango da urtetan ira-

30. *FLV*, 1969, 323.

31. Nahikoa litzaiguke ia iritziak aztertzea, testurik ere batere gabe.

32. Zentzu honetan nolanahi, ondo azpimarragarria da, nola, Etxanizek zuzenean sortutako II saileko testuetan, oso parekatuak gertatzen diren, SOV (44%) eta SVO (37%) multzoak. Ez hala, ordea, III saileko itzulpenak, beti lan markatuagoak: (SOV, %61; SVO %31).



kasle bertan<sup>33</sup>. Eta Lekuona bederen, agerian dakigu, nola Azkueren oso hurbileko dizipulu den, oso gaztetatik, Altube baino lehenagotik, euskararen hitz ordenaren kontuetan<sup>34</sup>.

Azkuek agerian aitortzen du, nola, bere bildumetako ipuinetan jakinaren gainean aldatu duen jatorrizko kontalariaren hitz ordena, hau «*gatzelaniazkoa zelako*»<sup>35</sup>. Ni beldur naiz, Barandiaranek ere ez ote zuen beste hainbeste egin bere kontakizunetan “euskararen mesedetan”; eta oso nabarmen, zuzenean bere Ataungo herrian “jasotakoen” artean (bere ama –garairako– zena-rengandik, arreba, edo gertukoengandik). De Rijkek I laginean aztertzen dituen 36 kontakizunetatik, 13 dira Ataungoak. Eta kurioski, Ataungo hauetan, SOV esaldiak dira %74,1a (60 esaldi ere bai, korpuseko beste 23 narrazioetan bildutako 55en aldean). Eta batera, SOV eta OVS esaldiek (Azkuek euskalduntzat predikaturiko bi ordenak) osatzen dute guztien %82,7a ere. Bitxiki, berriz, Ataungo testuetan SVO esaldiak %8,6a soila dira (beste 23 kontakizunetan %39,3a diren bitartean; eta SOVak %47a baino ez)<sup>36</sup>.

33. Azkueren harreman fisikoaz Gasteizko apaiztegiarekin, eta bertako langintza euskaltzaleekin (1915etik aurrera baita ere *El Cooperador del Clero* Gasteizko aldizkariaren euskal atalarekin), ik. L. AKESOLOREN «Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas» (56). Errezeloa daukagu gainera, Azkuek klase, sermoi edo predikazioak ere egiten ote zituen garaian Gasteizko apaiztegian.

34. Ikus, esateko, 1918an, artean 23/4 urtez, Gasteizen egiten duen *Métrica vasca* hitzaldi bukaerako lehen ohar *pre-altubetar* jakingarri askoa euskarazko hitz ordenamenduen berezitasunen gainean, galdegai legearen formulazioarekin (1978, 154-5).

35. Hala dio (1934, *Euskalerrriaren Yakintza*, I, 18-9): «..., Latasara bidean, Goldaratz deritzaion irixko artan ipuinak ugari zekitzan gizon bat bizi zala esan zidaten, emezortzi semealaben aita. / Astiro, inork baino astiroago, zekien berak buruan zituenak edasten; eta nik itzez itz, erraz artzen nitien guztiak. Laxter oartu nuen aren buruan gertatzen zan agi edo fenomeno bat. Berak or ta emen ibilita, alakori ta onelakori entzunda, ipuin batzuk, geienak noski, euskeraz sartu izango zituen buruan; beste batzuk, bat edo beste beintzat, erderaz ere bai. Burutik atera bear zituenean erderaz poliki zekiela edo, erderazko Sintaxisean yosita eltzen ziran guztiak nire belarrietara. Lenengo ipuinaren azkenera-orduko ezagutu nuen aren buruko agittoa ta nik orduan esakera bat burutu-arte itxaron ta gero euskeraz yosita banan banan paperezatzen nituen».

36. Greenberg / De Rijkek proposatutako kontaera sistema bera erabiliz, ni ez naiz iritsi De Rijken datu bereetara esaldien zenbatzean, nahiz aldeak ez diren esanguratsuegiak (De Rijkek 138 esaldi SOV kontatu ditu, nik 115; hark 48 SVO, nik 53; ...). Segidan nire datu orokorrak, hiru ataletan banatuta (Ataungo 13ak, beste 23ak, eta guztirakoak):

	Ataun		Besteak		Denera	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SOA (SOV)	60	74,1	55	47,0	115	58,0
SAO (SVO)	7	8,6	46	39,3	53	26,8
OAS (OVS)	7	8,6	10	8,5	17	8,6
OSA (OSV)	3	3,7	2	1,7	5	2,5
ASO (VSO)	4	4,9	4	3,4	8	4,0
AOS (VOS)	0	0,0	0	0,0	0	0,0
<b>Denera</b>	<b>81</b>	<b>100%</b>	<b>117</b>	<b>100%</b>	<b>198</b>	<b>100%</b>

Guk susmoa dugu, Don Jose Miguelek denei ere egin ote zizkien bere joskera ukituak, Azkuek bezala. Nabarmenago Ataungoei, datuen arabera, baina baita ere beste batzuei, zeinetan, Ataungoetan bezala, oso ageria den aditzen atzeratze orokorra (esateko, VII ipuinean, XXean, XXVII edota XXVIIIan).

Zalantza guztion ondorioz, ezin pentsatu da halako korpusetatik eratorritako datuak ere baliagarriak izan litezkeenik euskararen hitz ordena eza-gutzeko, ezpada berriro, gehiago edo gutxiago, joskera eskola Azkue-Altubertarrean egositako euskara horrena.

## SUO ORDENAMENDU DATU GEHIAGO, ETA BALIAGARRIAGOEN, BILA

Egia esan, tesi lanean ez naiz sistematizazio handiegirekin aritu datu biltzen, bereziki SVO elementuak agerian erakusten zituzten esaldien hitz ordenaz, aurrez ezaguturik hauen muga kuantitatiboak. Bildu ditut halere, De Rijknen aldean, beste zenbait autore eta testuetako datu estatistikoak konparaketa baterako. Eta dauzkadanak emango ditut, erakutsiz ez dutela antz handirik De Rijken haiekin.

### XVII mendeko bi prosa nagusi: Axular eta Tartas

Autore biak ondo patxadazko obra erreflexiboen egile, gure prosazko lehen orijinal pisuzkoak. Axularren liburuaren bigarren erdia edo aztertu dut (XXXI-LV bitarteko kapituluak; 1976, 383-699). Tartasena berriz, 1666ko *Onsa hilceco bidia*, osorik (Darricarrère-ren argitalpenetik RIEVen). Esaldiak jasotzeko irizpideak Greenberg/De Rijken berberak. Hauek datuak:

	Axular		Tartas	
	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	98	48,0	108	44,3
SOA (SOV)	52	25,5	87	35,7
OAS (OVS)	25	12,2	26	10,7
ASO (VSO)	20	9,8	9	3,7
OSA (OSV)	6	2,9	12	4,9
AOS (VOS)	3	1,5	2	0,8
<b>Denera</b>	<b>204</b>	<b>100%</b>	<b>244</b>	<b>100%</b>

Bestelakoan, Ataungo testigantza fidelak jasotzen dira (Maria Barandiaranek ere adibiderako), nahiz laburrak: F. LEIZAOLA (eta beste), *Euskal Atlas Etnolinguistikoa*, bigarren zatia, 142-3. Eta pentsatzekoa zen bezala, testigantza hauek ez dute alderik beste lekuetan jasotakoekin, J. M. Barandiaranek bai bezala.

Ez dago zalantzarik. Bi autoreetan dira gehiago nabarmena SVO esaldiak. Nahiz bietan ere den altua SOV esaldien portzentaia.

### XIX mendeko lau autore aukeratu

Euskalki desberdinetako lau egileren prosazko obrak aztertu ditut, azkena salbu zuzenean euskaraz sortuak, eta denak ere kritika ona jaso ohi dutenak erabiltzen duten hizkuntz ereduagatik, nola, gaia garatzeko duten era arin eta komunikatiboarengatik. Hala: J. A. Moguel bizkaitarraren *Peru Abarca* (1802), gure lehenengo nobela edo, osorik aztertu dut (43-202), salbu azkeneko platika latinoen itzulpenak, eta tarteko bertsoak; J. B. Agirre-ren *Eracusaldia I* (1808) obraren *Confesioco sacramentuaren gañean eracusaldia* osorik (103-321); J. P. Duvoisin-en *Laborantzako liburua* (1858), elkarriketa didaktikoak, osorik aztertu ditut; eta azkenik, Antero Apaolaza mediku anzuolarrak, Truebaren *El Judas de la casa*-tik moldatutako (eta ez agidanean zuzenean itzulitako) *Pachico Cherren* kontakizuna (Bergara, 1890), osorik hau ere<sup>37</sup>. Datuak, esanguratusak, segidakoak:

	Moguel		J. B. Aguirre		Duvoisin		Pach. Cherren	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	92	69,7	111	55,5	150	59,3	55	63,2
SOA (SOV)	5	3,8	17	8,5	93	36,8	10	11,5
OAS (OVS)	10	7,6	31	15,5	3	1,2	18	20,7
ASO (VSO)	15	11,4	33	16,5	1	0,4	2	2,3
OSA (OSV)	3	2,3	0	0,0	5	2,0	0	0,0
AOS (VOS)	7	5,3	8	4,0	1	0,4	2	2,3
<b>Denera</b>	<b>132</b>	<b>100%</b>	<b>200</b>	<b>100%</b>	<b>253</b>	<b>100%</b>	<b>87</b>	<b>100%</b>

Lau laginetan dira esaldi guztien erdiak baino nahikoa gehiago SVO ordenan emanak. Eta bakarrik Duvoisinengan suma liteke proportzio sendo bat SOV esaldiena (%36,8), gorago Axular edo Tartasen antzekoa; Moguelengan, aldiz, proportzio hau %3,8raino erortzen da.

### Lau ipuin bilduma herrikoi

Aztertu ditut ere lau ipuin bilduma desberdin. Lehenengoa Wendworth Webster apaiz anglikarrak egina 1877rako, Lapurdiko Sara inguruko herrita-

37. Gaztelaniazkoaren moldakuntza izan arren, aztertu duguna, besteak beste, Azkuek biziki gorai patzen duelako behin baino gehiagotan bere lanetan, nola dioen adibidez bere *Método Práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano* didaktikoan (1896, 44): «... la preciosa novelita *Pachico Cherren*. Uno de los libritos escritos en euskera que más placer me han causado. Sería muy de desear que su autor diese más muestras de vida».

rren artean jasotako ipuin folklorikoekin, eta oraintsu argitaratua lehenengo aldiz euskaraz. Soilik lehen tomoa aztertu dut.

Bigarren bilduma, J. F. Cerquand-ena behenafarrerazko eta zubererazko ipuin folklorikoekin, eta lehenengo aldiz argitaratua 1871-1885 urteak artean. A. Aranaren argitalpena erabili dut bi tomotan, eta biak aztertu ditut. Egin liteke zenbait zalantza, hauen transkribapenaren fideltasunaz jatorrizko aho ereduarekiko Cerquand berak gatzigatu bezala zenbait ipuinen aurrean. Baina, ahozko zuzen-zuzenak izan, edota idatzian zeredozer erantsitakoak, bertatik eratorritako datuak, ez dira beste sailetan aurkitutakoen oso bestelakoak.

Hirugarrenik, aztertu ditut Urruzuno apaiz elgoibartarraren ipuin barre-garriak, 1880-1923 bitartean idatziak, eta oraintsuago berriro bilduak. Urruzuno aukeratu dut, Azkueren garaikide, lagun, eta lankide izateaz gain euskal langintza askotan, Altube berak ere biziki gorai patzen duelako haren euskara, hain zuzen, herrikoitzat<sup>38</sup>. Nolanahi, dudagabeko eboluzio bat sentitzen da Urruzunoren joskeran, Azkuetartze bidean urteak aurrera ahala eta aditzak nabarmen atzeratzen esaldian. Datuak, halere, esanguratusak segitzen dute izaten<sup>39</sup>.

Azkenik, aztertu dut ere, Mayi Ariztiak 1934an argitaratzen duen ipuin bilduma laburra, *Laburditar ipuñak* izenpean<sup>40</sup>.

Hala eskuratu ditugu segidako datuak:

	Webster		Cerquand		Urruzuno		Lab. Ipuñak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	85	68,5	181	63,7	56	42,4	12	38,7
SOA (SOV)	18	14,5	79	27,8	27	20,4	10	32,3
OAS (OVS)	5	4,0	11	3,9	23	17,4	2	6,4
ASO (VSO)	3	2,4	4	1,4	18	13,6	3	9,7
OSA (OSV)	9	7,3	9	3,2	5	3,8	0	0,0
AOS (VOS)	4	3,2	0	0,0	3	2,3	4	12,9
<b>Denera</b>	<b>124</b>	<b>100%</b>	<b>284</b>	<b>100%</b>	<b>132</b>	<b>100%</b>	<b>31</b>	<b>100%</b>

38. Hala dio Altube jada heldu batek esanguratsu asko (*La vida del Euskera*, 1934, 52-3): «..., una obra de las muy pocas originales que, entre las publicadas en estos tiempos, merece verdaderamente el título de *literaria*. El euskera que emplea Urruzuno en ese libro es la transcripción fiel del habla del pueblo; ...».

39. Kasu honetan, nola Websterren ipuinetan, nire adiskide Fernando Durana izan da, nire eskera, SVO elementudun esaldien kontaketa ren egilea. Hemendik ere nire eskerrak.

40. Azkue eta Barandiaranen kasuetan bezala, segurasko egin liteke zalantza ipuin hauen transkribapen sintaktikoen fideltasunaren inguruan, printzipioz herritarren ahotik jasotakoak izan 'arren. Berauetan ere nabarmen da, bitxiki, aditzen nolabaiteko posposizioa esaldian. Eta agian hala moduzko ordenamendu zuzenketak ez lirateke horren harritzekoak, prezeski Aita Barandiaranek gidatzen duen *Eusko Folklore* aldizkariko lan batean, eta agian haren zuzendaritzape zuzenean eginikoa. Ez daukagu nolnlahi aparteko daturik, susmoaz gain.

Oso esanguratsuak dira SVO gehiengoak lagin guztietan (are Urruzuno azkuetarrarengan ere, doble/erdia erlazioan: %42,4 SVO / %20,4 SOV). Mayi Ariztiaren ipuinak dira, susmagarriki, parekatuenak bi multzoen artean, %38,7 SVO / %32,3 SOV.

### Gaur eguneko ahozko testigantza bat: Bizkaiko Zeberiokoa

Aztertu ditut ere J. M. Etxebarriak bere tesian emandako Zeberio haraneko ipuinen traskripzioak, agi danean oso fidelak (*Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, 336-395). Eta oro har, hauek erakusten duten hizketa maila oso apala izan arren, bertan ere SVO esaldiak dira nagusi, nahiz SOVak ere garrantzizko multzoa osatu:

	Zeberio	
	Kopur.	%
SAO (SVO)	39	37,5
SOA (SOV)	29	27,9
OAS (OVS)	11	10,6
ASO (VSO)	9	8,6
OSA (OSV)	12	11,5
AOS (VOS)	4	3,8
<b>Denera</b>	<b>104</b>	<b>100%</b>

### Estatistika bat Azkueri

Kontraste modura aztertu nahi izan dut Azkue beraren prosa narratibozko lehenengo lanetako bat: *Bein da betiko* (1893), orain berrargitaratua. Bertan ezin nabarmenagoa da multzo nagusien pisu zeharo desberdina, aztertutako beste lagin guztien aldean. Kurioso?:

	Azkue	
	Kopur.	%
SAO (SVO)	13	15,8
SOA (SOV)	31	37,8
OAS (OVS)	30	36,6
ASO (VSO)	6	7,3
OSA (OSV)	2	2,4
AOS (VOS)	0	0,0
<b>Denera</b>	<b>82</b>	<b>100%</b>

Objetua aditzaren aurrean erakusten duten esaldien kopuru bateratua, SOV/OVS (Azkuek preskribatuak), dira guztien %74,4a. Bitartean, SVOak ez dira erresidualak baino. Segurasko juzga liteke 1893ko *Bein da betiko* lehen prosa lana, joserka Azkue-Altubetar iraultzailean idatzirikoa, aurreko hizkuntz senaren aurkara.

**1596ko Refranes y Sentencias-eko hitz ordenaz, eta XVI eta XVII mendeetako beste testu bizkaitar batzuen**

1985eko ekainean aurkeztu zuen Blanka Urgell-ek *Refranes y Sentenciaseko hitz ordenaz zenbait ohar* lana<sup>41</sup>. Eta bertan erakusten ditu zenbait estatistika, Greenberg / De Rijken baldintzetan eginak, hainbat testu zaharren inguru: 1596ko *Refranes y sentencias*; Micoletaren *Modo breve para aprender la lengua vizcayna* (Bilbo, 1653); Capanagaren *Exposición breve de la Doctrina Christiana* (Bilbo, 1656); *Viva Jesus* (XVII mendea; K. Mitxelenaren ed., 1954); *Domingo Egiaren kanta* (XVII mendea; A. Arejitaren ed.); Fr. Juan de Zumarragaren *Gutuna* (XVI mendea; I. Sarasolaren ed., 1983); *Bertso Bizkaitarrak* (1688; J. Lakarraren ed., 1984). Lana argitaragabea da, eta autoreak berak eskuratutakoa. Segidakoak datuak:

	Ref. y Sen.		Micoleta		Capanaga		Viva Jesus	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	28	56,0	8	57,1	34	75,6	2	40,0
SOA (SOV)	14	28,0	2	14,3	5	11,1	0	0,0
OAS (OVS)	3	6,0	0	0,0	1	2,2	0	0,0
ASO (VSO)	1	2,0	3	21,4	4	8,9	2	40,0
OSA (OSV)	4	8,0	0	0,0	0	0,0	1	20,0
AOS (VOS)	0	0,0	1	7,1	1	2,2	0	0,0
<b>Denera</b>	<b>50</b>	<b>100%</b>	<b>14</b>	<b>100%</b>	<b>45</b>	<b>100%</b>	<b>5</b>	<b>100%</b>

	Domingo Egia		J. Zumarraga		Bertso Bizkait.		Denera	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	3	27,3	3	60,0	3	50,0	81	59,6
SOA (SOV)	2	18,2	0	0,0	1	16,7	24	17,6
OAS (OVS)	4	36,4	1	20,0	0	0,0	9	6,6
ASO (VSO)	1	9,1	1	20,0	1	16,7	13	9,6
OSA (OSV)	1	9,1	0	0,0	1	16,7	7	5,1
AOS (VOS)	0	0,0	0	0,0	0	0,0	2	1,5
<b>Denera</b>	<b>11</b>	<b>100%</b>	<b>5</b>	<b>100%</b>	<b>6</b>	<b>100%</b>	<b>136</b>	<b>100%</b>

41. Gasteizko Filologia Fakultatean uste dut.

Egin litezke hainbat erreflesio desberdin XVI eta XVII. mendeetako testu bizkaitar hauen balioez euskarazko hitz ordena aztertzeko<sup>42</sup>. Esanguratsuki ordea, datu hauek ere zerikusi gutxi dute gaur eguneko joskera eskola Azkue-Altubetarrak proposatutako joskerekin, eta asko aldiz, gure corpuseko beste guztiekin.

## K. Rotaetxeren Ondarruko datuak

1978an argitaratzen du K. Rotaetxek bere *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, eta ez dira ere gutxiago jakingarriak bertan egiten diren hainbat baieztapen, Ondarruko ahozko euskararen gainean, eta bertako hiztunen espontaneoki eta maizenik aurkitutako SVO (SAO) ordenaren inguru. Besteak beste, segidakoak:

La construcción a la que se ha recurrido con más espontaneidad parece ser SVO y en ella las pausas no parecerían tener especial importancia. (336 or.) / ... / Interesa, sin embargo, señalar con respecto al estudio de DE RIJK [gu eztabaidatzen gatozena], en el que el autor concluye que la estructura profunda de la frase parece ser SOV, que en Ondárroa las frases de salida han mostrado una clara preferencia hacia la construcción SVO. (337 or.) / ... / Nos referíamos a la ordenación de los elementos (secuencias) en la cadena hablada. Indicábamos ya en 3.04 que el orden que con mayor frecuencia se

42. Segidan, B. Urgellek bere lanean egiten dituenetako batzuk (3 or.): «XVI. mendeko testu gehien aldamenean, RS [Refranes y Sentencias] ez da itzulpena, nahiz eta Urkixok horrelakorik uste ...»; (8 or.): «Ohar bedi de Rijkerean SOVen kopurua SVOrenaren doblea (%57:%30) den bitartean, RSen guztiz alderantziz (%28:%56) gertatzen dela.»; (11-2 orr.): «Dotrinek RSen aurkitu dugun oinarrizko ordena bera –SVO, alegia– agertzen da [sic]; honek liburu hauei buruz mantendu obi den iritzia hein batean bederen aldatzera garamatza: Este género de literatura religiosa, basado en la traducción y muchas veces en el calco ... (MITXELENA, *La Doctrina cristiana de Betolaza*, BAP, XI, 1955, 87 or.) bezalako hitzak egia badira ere ..., ez da zaila hortik urruntzen diren zenbait esaldi topatzea; Kapanagaren dotrina gainetik ikusita honako hauek aurkitu ditut: ... [eta ematen du adibide sail bat, ondorioz amaitzeko esanez:] Beraz, badirudi nolabaiteko askatasuna badutela [dotrinagileek] hitz ordena antolatzerakoan eta, gure datuetarik pentsa daitekeen bezala, SVO ordena erabiltzen dutenean –orijinalak hortaturik, dudarik gabe– ez dira euskarak ezagutzen ez duen orden batez baliatzen, baizik eta hizkuntzak ematen dituen [sic] posibilitate batez».

Egia esan, Mitxelenak haizatzen zituen jada halako susmoak, De Rijkeren lanari be-deinkazioa ematen zion artikulua berean eginiko oharretan (1978; 1987, 378-9 orr.): «En estas notas [datozenak] se examina un cierto tipo de ordenaciones, a título de muestra, como posible señal de una manera de contar que, por los textos en que lo hallamos, puede considerarse con alguna confianza como continuador de moldes tradicionales. Se alude, en resumen, al hecho de que, tanto en cantares épicos como en refranes, se encuentran ciertas ordenaciones que, aun cuando no sean mayoritarias –y acaso precisamente por eso mismo–, tienen una frecuencia estadística suficiente para que merezcan ser tenidas en cuenta, al menos a título de ensayo, en un estudio de nuestra estilística. / Las que yo he mencionado, son sobre todo dos: / 1. No sorprende hallar, con verbo intransitivo ( es decir, en frase bimembre, una vez reducida a lo esencial), el orden V.S., ... / Esto mismo vale para construcciones transitivas, donde el lugar preferente puede ser, superficialmente o en apariencia, el segundo, detrás ... de un inciso circunstancial, secundario en relación con el núcleo de la frase. / 2. Tampoco es raro, en un tipo de relato que parece más tradicional que innovador, el orden (S.)V.O., cuando V. es transitivo».

daba ere S (erg) - V - O (obj. absoluto). La ampliación del corpus nos lleva ahora a los mismos resultados. Se trata, indudablemente de un aspecto delicado que requeriría una dedicación especial y una encuesta más amplia; ... (647-8 orr.) / ... / ... los procedimientos para destacar lo que en euskara ha venido llamándose "galdekizun hitza" o palabra inquirida. Por lo menos desde *Erderismos* de Altube los tratados, más normativos que descriptivos, vienen insistiendo en que tal palabra ocupa un lugar fijo, el que inmediatamente precede al verbo. Con los datos que poseemos, en Ondárroa, esto sigue siendo y no sigue siendo cierto. (649 or.) / ... / De acuerdo con nuestros datos la teoría de ALTUBE tendría que ser modificada, precisando que existe un orden normal de construcción no marcada asumiendo que, hacer de un elemento sujeto de frase es ya, en cierto modo, destacarlo / Tal orden, según los datos de Ondárroa, es: / V (- trans.) ..... S - V / V (+ trans.) ..... S - V - O. (650 or.).

Rotaetxek egiten ditu zenbait erreflexio interesgarri gehiago datuen inguru, baina nik, batez ere, datua nahi nuke azpimarratu.

\* \* \* \* \*

Datu guztiok kontutan izanik, ez dirudi zentzu gehiegirik lukeenik, besterik gabe euskararen SOVtasuna aldarrikatzen segitzea.  
Aurrerantzean eztabaidak irekia behar luke.

#### BIBLIOGRAFIA AIPATUA

- ABBADIE, A. Th. d'; CHAHO J. A. (1836) *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. París, 1836.
- ADJÉMIAN, C. (1978) «Theme, Rheme and Word Order: From Weil to Present Day Theories». *Historiographia Linguistica* 3, 1978, 253-273.
- AGUIRRE, J. B. (1808) *Eracusaldiac*. Tolosa, 1850, 3 tomo; Donostia, Hordago, 1978.
- AKESOLO, L. (1965) «Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas». *BAP*, 1965, 35-63.
- ALTUBE, S. (1919) *De sintaxis euskérica*. Donostia, 1920.  
(1929) *Erderismos*. Euskera, 1929; Euskaltzaindia, 1975.  
(1934) *La vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa*. Editorial Vasca, Bilbao, 1934.
- ANIBARRO, P. A. (1802) *Escu-librua*. Tolosa, 1802; Hordago 1978. (2. arg. zuzendua, Tolosa, 1821; 3. arg., Tolosa, 1827).  
(1969) *Gramática bascongada para el uso y alivio de párrocos y predicadores bizcaynos, guipuzcoanos y navarros*. ASJU, 1969, III, 3-169.
- APAOLAZA, A. (1890) *Pachico Cherren*. Bergara, 1890; Erein, 1992.
- AREJITA, A. (198?) «Domingo egiaien kanta». *Euskeraren Iker Atalak*, 2, 139-181.
- ARIZTIA, M. (1934) «Laburditar ipuñak». *Anuario de «Eusko-Folklore»*, T. XIV, 93-129.
- ARRUE, G. (1858) *Cristauaren doctrinaren jaquinbide azaldua, edo Asteteren esplikacioac Santiago Mazo jaunaren liburutic*. Donostia, 1858.
- AXULAR, P. (1643) *Gero*. Jakin, Aranzazu, 1976.
- AZKUE, R. M. (1891) *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*. Bilbao, 1891.  
(1893) *Behin da betiko. Lenengo irakurgai*. Bilbao, 1893; Donostia, EEE, 1986.  
(≈ 1894) *Ensayo Práctico*. (1896ko, *Método Práctico*-aren aurreko eskuizkribu argitaragabea, Euskaltzaindiako Azkue bibliotekan).  
(1896) *Método Práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano*. Bilbao, 1896.



- (1935-47) *Euskalerrriaren Yakintza*. Madrid, Espasa-Calpe, 1935-1947 (4 tomo); Madrid, 1989.
- AZURMENDI, J. (1977) «Orixeren frasekera: ritmoa». In *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, 1977, 325-345.
- BARANDIARÁN, J. M. (1921-....) *Eusko- Folklore*. In *Obras Completas*, t. II, eta t. III. (zatiak, *El Mundo en la mente Popular Vasca*, III, Auñamendi, 27, 1962.)
- CAMPIÓN, A. (1884) *Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara*. Tolosa, 1884; faksimila LGEV.
- (1897) «La lengua bascongada». *Euskal-Erria*, 37, 1897.
- (1918) «La lengua baska». In F. Carreras Candi, *Geografía general del País Vasco-Navarro. Provincias vascongadas*, t. VI, 1918, 193-249.
- CAPANAGA, M.O. (1656) *Exposición breve de la doctrina christiana*. Viso, 1893 (Dodgsonen ed.).
- CARDAVERAZ, A. (1744) *Cristavaren vicitza*. Iruñean: Anchuela, 1744.
- (1760) *Cristavaren bicitza*. In *Euskal lan guziak*, I, LGEV, 1973/4, 51-149.
- (1761) *Euskararen berri onac*. In *Euskal lan guziak*, I, LGEV, 1973/4, 155-170.
- (1761) *Aita San Ignacioren ejercicioen gañean afectoac*. In *Euskal lan guziak*, I, LGEV, 1973/4, 263-361.
- CERQUAND, J.F. (1874-1885) «Légendes et récits populaires du Pays Basque». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 1874-5, 1875-6, 1876-7, 1884-5. Orain euskaraz soilik, *Ipar Euskal herriko legenda eta ipuinak*, Txertoa, Donostia, 1985-6, 2 tomo.
- CHEVALIER, J.C. (1968) *Histoire de la syntaxe. La naissance de la notion de complément dans la grammaire française (1530-1570)*. Genève-Paris, 1968.
- DARRIGOL (1827) *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*. Baiona, 1827.
- DARTHAYET, J.P. (1867) *Le mécanisme de la construction du verbe basque en dialects du Labourd et des pays limitrophes*. Bayonne, 1867.
- DUVOISIN, J.P. (1856) *Liburu ederra*. Baiona, 1856; Hordago, Donostia, 1978; EEE, Donostia, 1987.
- (1858) *Laborantzako liburua*. EEE, Donostia, 1986.
- ETXANIZ, N. (1958) *Euskal-Antzertiak*. Kuliska Sorta 27-8, Itxaropena, Zarautz, 1958.
- ETXEBARRIA, J.M. (1991) *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Ibaizabal, Deustu, 1991.
- EUSKALTZAINDIA, (1987) «Hitz ordena». *Euskal Gramatika lehen urratsak - I (Eraskina)*, 19-46.
- GÈZE, L. (1873) *Éléments de grammaire basque*. Bayonne, 1875; Hordago, Donostia, 1979.
- GREENBERG, J.H. (1963) «Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements». In: J.H. Greenberg (ed.), *Universals of Language*, 58-90, Cambridge (Mass), MIT Press. (2nd. ed., 1966, 73-113; baita ere italizatuz, in *La tipologia linguistica*, P. Ramat (ed.), 115-154.)
- GUERRICO, J.I. (1805) *Cristau doctrina guztiaren explicacioaren sayaquera*. Tolosa, 1858, 2 tomo.
- HAGÈGE, C. (1978) «Du thème au thème en passant par le sujet. Pour une théorie cyclique». *La Linguistique*, 14-2, 1978, 3-38.
- (1978) «Intonation, fonctions syntaxiques, chaîne-systeme, et universaux des langues». *BSLP*, XXIII, 1978, 1-48.
- (1985) *L'homme de paroles. Contribution linguistique aux sciences humaines*. Fayard, 1985, Folio Essais. 2e. éd. 1986.
- HARRIET, M. (1741) *Gramatica escuaraz eta francesez*. Baiona, 1741.
- HAWKINS, J.A. *Word Order Universals*, Academic Press, 1983.
- HIDALGO, V. (1993) *Resurreccion Maria Azkue (1864-1951): XX mendeko hitz ordenamenduen inaulketa bortitz guztiaren, Aita eta eragile*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesiaren parte).

- (1993) *Hitzen ordena euskaraz. Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesiaren parte).
- (1994) *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesiaren parte).
- (1995) *Hitzen ordena euskaraz*. (Doktoretza tesia, EHU, Euskal Filologia, Gasteiz, argitaragabea).
- INCHAUSPE, E.T. (1856) «Notes grammaticales». Gehigarria, *Sen Mathiuren Ebanjelioa*-ri, I-XLVI. Euskaltzaindiak berrargitaratua 1991n, Bonaparteren lan guztien artean.
- (1858) *Le verbe basque*. Bayonne, 1858; Hordago, Donostia, 1979.
- IRIGOIEN, A. (1979) «Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak». *Euskera*, 1980, 325-353.
- ITHURRY, J. (1895-....) *Grammaire basque. Dialecte labourdin*. Bayonne, 1895
- LAFITTE, P. (1944) *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Baiona, 1944 (2. arg. Bordeaux, 1962; Elkar, Donostia, 1979).
- LAKARRA, J. (1984) (ed.) «Bertso bizkaitarrak». ASJU, XVIII, 1984, 89-197.
- LARDIZABAL, F.I. (1855) *Testamentu zarreco eta berrico condaira*. Tolosa, 1855.
- (1856) *Gramatica vascongada*. San Sebastián, 1856.
- LARRAMENDI, M. (1990) *Escritos breves*. Donostia, SGEP, 1990.
- LÉCLUSE, F. (1826) *Grammaire basque*. ASJU, 1987, 813-916.
- LEIZAOLA, F. (koordin.), (1983) *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa -EAEL-. Lehen atala. Lehen zatia*. Aranzadi Zientzia Elkarte, Etnologia Mintegia, Donostia, 1983. *Bigarren zatia*, 198?.
- LEKUONA, M. (1918) *Métrica vasca*. Vitoria, 1918 (*Idaz-lan guztiak. I. Aozko literatura*, 1978, 131-157).
- LHANDE, P. (1921) *Yolanda*. Donostia, 1921 (jatorrizko frantzesekoa, Paris, 1921).
- MICOLETA, R. (1653) *Modo breve para aprender la lengua vizcayna*. Barcelona, 1880; Sevilla, 1897.
- MITXELENA, L. (1953) *Arnaut Oihenart*. BRSVAP, 1953, 445-463 (bereziki, 459-462 orr.). (Orain in *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak -MEIG-*, V, 35-47.).
- (1954) (ed.), «Viva Jesus», BAP X, 1954.
- (1968) «Plan base o proyecto general sobre unificación. Euskera - Batasuna». *Euskera*, XIII, 1968, 203-219 (bereziki, *Joskera* atala, 218-9 orr.) (*MEIG*, VII, 135-153).
- (1977) «Euskal hizkera eta euskal neurkera». *Euskera*, XXII, 1977, 721-733 (bereziki, *Ate osteko eraskin gisa* atala, 729-33 orr.). (*MEIG*, IV, 91-105).
- (1978) «Miscelánea filológica vasca I». *FLV*, 1978, 205-228 (bereziki, *Relato y orden de palabras* atala, 220-224 orr.). (Baita ere, in *Palabras y textos*, EHU, 1987, 363-385).
- (1979) «Miscelánea filológica vasca III». *FLV*, 1979, XI, 213-236 (bereziki, *Arratsaldea zen alakoa* atala, 226-230 orr.). (Baita ere in *Palabras y textos*, EHU, 1987, 411-433).
- (1981) «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz». *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*. Univ. de Deusto, 1981, 57-8 (baita ere in *MEIG*).
- MOGUEL, J.A. (1802) *Peru Abarca*. Durango, 1881; faksimila, 1981.
- MOCOROA, J.M. («Ibar»), (≈ 1966) Eskutitza, I. Eizmendi «Basarri»ri erantzun. In, IRIGOIEN, A. (1979) «Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak». *Euskera*, 1980, 340-3.
- OLAECHEA, B. (1763) *Dotrina Cristiana*, Vitoria 1763. (2. arg. zuzendua, Bilbo, 1775).
- RICKEN, U. (19??) «L'ordre naturel du français. Naissance d'une théorie». In *La Grammaire Generale. Des modistes aux ideologues*, H. Aarsleff (et al.) (eds.), PUL, Lille III, 201-216.
- (1985) *Grammaire et philosophie au siècle des lumières. Controverses sur l'ordre naturel et la clarté du français*. PUL, Lille III, 1985.
- RIJK, R.P.G. de, (1969) «Is basque an SOV language?». *FLV*, 3, 1969, 319-351.

- ROTAETXE, K. (1978) *Estudio estructural del euskera de Ondárroa*. L. Zugaza (ed.), Durango, 1978.
- SARASOLA, I. (1983) (ed.) «Fray Juan de Zumarragaren Gutuna». *ASJU*, XVII, 1983, 97-102.
- SCAGLIONE, A. (1972) *The Classical Theory of Composition. From its Origins to the Present. A Historical Survey*, Chapel Hill, The Univ. of North Carolina Press, 1972.
- TARTAS, J. (1666) *Oña hilceco bidia*. Orthez, 1666 (RIEV, I, II, III).
- TELLECHEA J.I. (1968) «Larramendi y Cardaveraz. Censura y réplica inéditas sobre un libro de piedad.». *ASJU*, 2, 1968, 5-31.
- URGELL, B. (1985) *Refranes y sentencias-eko hitz ordenaz, zenbait ohar*. 1985, eskuizkribua.
- URRUZUNO, P.M. (1988) *Ipuinak*. EEE, Donostia, 1988.
- URQUIJO, J. (1911-1933) *Los refranes y sentencias de 1596. Estudio comparativo*. RIEV, 1911-1933; Añamendi, Donostia, 1967, 2 tomo.
- VILLASANTE, L. (1956) «Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca. - Estudios de sintaxis vasca». *Euskera*, 1956, 14-18.
- (1966) «(Hitzaurrea)». In Txomin Agirre, *Garoa*, EFA (berrarg.), 3-16.
- (1970) «Sintaxis». In *Hacia la Lengua Literaria Común*. EFA, Serie Eleizalde (2. arg.), 89-93.
- (1974) «Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX. mendean». *FLV*, 1974, 325-342.
- (1975) «Hitzaurre gisa». In S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia (berrarg.), V-XII.
- (1976) *Sintaxis de la oración compuesta*. EFA. Serie Eleizalde (bereziki, «Orden entre la oración principal y la subordinada», eta «Orden de colocación entre las subordinadas de un mismo período» atalak, 58-60).
- (1979) *Historia de la literatura vasca* (2. arg.). Aranzazu. (Autore desberdinen azalpenetan barreiatutako iruzkinak, bereziki Azkue, Altube eta XX mende honetako hegoaldekoen artean).
- (1980) *Sintaxis de la oración simple*. EFA. Serie Eleizalde (bereziki, «Ordenación de los elementos en la frase vasca», 227-260).
- (1982) «Sarrera». In Lapeyre, *Kredo edo sinhesten dut esplikatu*, Euskaltzaindia (berrarg.), 5-27.
- (1988) «Hitzaurrea». In Azkue, R.M. *Latsibi*, Labayru (berrarg.), IX-XIV.
- (1988) «Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra». In *Euskararen auziaz*, EFA, Serie Eleizalde, 141-154.
- (1989) «Aita Ubillos-en "Christau doctriñ berri-ecarlea"». *Euskera*, XXXIV, 1989, 517-531.
- WEIL, H. (1844) *L'ordre des mots dans les langues anciennes comparées aux langues modernes*. 3é. ed., Paris, 1879.
- WEBSTER, W. (1993) *Euskal ipuinak*. EEE, Donostia, 1993, 2 tomo.
- ZUBIMENDI J.R.; ESNAL, P. (1993) «Joskera». In *Idazkera-liburua*, Eusko-Jaurlaritz, 1993, 133-235.

## LABURPENEA

Euskara sailkatua izan da SOV ordenako hizkuntza bezala. Eta egia da, gramatika normatiboen eraginez estatistikoki ere joera hori nagusitu dela prosa idatzian XX mendeko testuetan. Aldiz, aurreko literaturak SVO ordena erakusten du nabarmen. Eta SVO ordena berori aurkitzen dugu nagusi gaur egun ahozko hizkeran, hala nola, aurreko mendean jasotako ahozko testigantzetan ere. Artikuluak ezagutzera ematen ditu datu estatistiko berri hauetako batzuk, bederen kolokan jar lezaketenak SOV adskripzio errazegi

bat. Artikulua saiatzen da ere esplikatzeko orain arteko sailkapenaren arrakastaren zergatia, baina batez ere eztabaidaren berrireki beharra azpimarratzen du.

## RESUMEN

El euskara ha sido clasificado como lengua de orden SOV. Ciertamente, por influencia de las gramáticas normativas, esa tendencia se ha adueñado de la prosa escrita del siglo XX. Por el contrario, la literatura anterior muestra un orden preferente SVO. El mismo orden que se encuentra preferido en la prosa oral actual, así como en la que nos ha llegado testimoniada del siglo XIX. El artículo da a conocer algunos de estos nuevos datos estadísticos, que al menos podrían poner en duda una adscripción SOV demasiado simple. El artículo trata también de explicar la posible causa del éxito de la actual clasificación, aunque recalca fundamentalmente la necesidad de reabrir el debate.

## RÉSUMÉ

La langue basque a été répertorié en tant que langue d'ordre SOV. En effet, l'influence des grammaires normatives a fait que cette tendance soit largement dominante dans la prose écrite du XX<sup>ème</sup> siècle. En revanche, la littérature antérieure fait preuve d'une préférence envers l'ordre SVO, le même ordre que préfèrent la prose orale actuelle ainsi que celle du XIX<sup>ème</sup> siècle dont nous avons témoignage. Le présent travail nous fait voir certaines nouvelles données statistiques dont la vertu viendrait à questionner solidement une adscription SOV par trop simpliste. Ce travail essaie d'expliquer l'une des causes possibles du succès du classement actuel, sans oublier le besoin de maintenir ouvert le débat.

## SUMMARY

The Basque Language has been rated as a language which shows a SOV order. No doubt, due to the influence of normative grammars, this predominant tendency has taken possession of the written prose of the 20th century. On the other hand, the literature written before that time, shows a prevailing SVO word order. The same word order which is preferred in the current oral prose, as well as in the testimonies of the prose passed on to us from the 19th century. This paper reveals some of the new statistical data which at least could question the SOV ascription as being too simple. This paper also intends to explain the possible reason for the success of the current classification, although it stresses essentially the need to resume the debate.